

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Huts zuzenketa 2025-3250 iragarkian, 2025eko azaroaren 12ko ALHAOn (129. zk.) argitaratua, jarduera sailkatuaren lizentziaren espedientea jendaurrean jartzeari buruzkoa

Hutsak atzeman dira jarduera sailkatuaren lizentziaren espedientea jendaurrean jartzeari buruzko 2025eko azaroaren 12ko ALHAOn (129. zk.) argitaratutako 2025-3250 iragarkian. Hori dela eta, honako huts zuzenketa hau argitaratzen da:

Hau dioen lekuan:

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 58.1 eta 58.2 artikuluetan xedatutakoa betez, jendaurrean jarri da hamabost egun balioduneko epean.

Hau esan behar du:

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 51.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, jendaurrean jarri da hilabetez.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2025eko abenduaren 4a

Alkatea

JAVIER GALLEGO RODRÍGUEZ